Basque - Konfort Liburu Santuek - Comfort Scriptures

2 Korintoarrei 1:2-4 Jainko gure Aitak eta Jesu Kristo Jaunak eman biezazkizuete grazia eta bakea. 3 Bedeinkatua Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, Aita errukitsu eta kontsolamendu ororen iturri den Jainkoa! 4 Berak ematen digu adore atsekabe guztietan, guk ere besteak edozein atsekabetan adoretu ahal izan ditzagun geuk Jainkoarengandik hartzen dugun adoreaz.

Esaera Zaharrak 15:13 Bihotza pozik, aurpegia argi; bihotza triste, begitartea ilun.

1 Erregeak 8:66 Biharamunean Salomonek bidali egin zuen herria. Jendea, erregea agurtu ondoren, bere etxeetara itzuli zen, alai eta bihotza bozkarioz betea zuela, Jaunak bere zerbitzari Davidi eta bere herri Israeli egin zien on guztiarengatik.

1 Kronikak 16:10 Harro zaitezte hartaz, Jainko santuaz, poztu, Jaunaren bila zabiltzatenok!

Esaera Zaharrak 12:25 Kezkak gizona bihozgabetzen du, hitz gozoak adore ematen.

Esaera Zaharrak 13:12 Gauzatzen ez den itxaropenak bihotzean pena sortzen; betetzen den nahia, bizi-fruituak dituen zuhaitza.

Isaias 30:26 Jaunak bere herriaren zauriak lotu eta sendatuko dituenean, ilargiak eguzkiak bezala egingo du argi; eguzkiaren argia, berriz, zazpi aldiz handiagoa izango da, zazpi eguzkirena batean bezalakoa.

Oseas 13:8 Umeak harrapatu dizkioten hartz amak bezala egingo diet eraso, bularra urratuko diet. Lehoi amak bezala irentsiko ditut, basapiztiek sarraskituko dituzte.

1 Samuel 1:8,10 Hortan, honela mintzatu zitzaion Elkana bere senarra: – Ana, zergatik ari zara negarrez eta ez duzu jaten? Zergatik zaude goibel? Ez al naiz, bada, ni zuretzat hamar seme baino hobe? 10 Ana oso nahigabetua zegoen, eta negar-malkotan otoitz egin zion Jaunari.

Salmoak 24:16,17 Itzul niregana eta erruki zakizkit, bakarrik bainago eta dohakabe! 17 Larritasunak hertsia dut bihotza, atera nazazu estuasun hauetatik.

Salmoak 33:18 Hurbil dago Jauna bihotz-hautsiengandik eta salbatzen ditu etsita daudenak.

Salmoak 37:9 Leher eginda nago, guztiz lur jota, garrasika eta aieneka barru-barrutik.

Salmoak 54:5 Taupaka dut bihotza bularrean, herio-larriak hartua nago.

Salmoak 60:3,4 Leize-ertzetik dei degizut bihotz larriz. Eraman nazazu harkaitz garaira. 4 Zu baitzaitut babesleku, etsaien kontra dorretxe sendo.

Salmoak 61:9 Izan beti harengan konfiantza, haren herri zaretenok! Zabaldu hari zeuen bihotza! Jainkoa dugu babesleku!

Salmoak 72:26 Gorputz eta espirituz, indargaltzen ari banaiz ere, zu zara nire adorearen euskarri, oi Jainko, zu nire betiko ondasun.

Salmoak 76:3,4 Neure larrialdian, Jaunarengana jotzen dut, gauez aspertu gabe besoak luzatzen, pozbide orori uko eginez. 4 Jainkoaz oroiturik, intziri dagit, hartaz pentsatzean, adorea galtzen dut.

Salmoak 85:11 Erakustazu, Jauna, zeure bidea, zurekiko leial joka dezadan. Batu nire bihotza barnean, zureganako begirunean bizi nadin.

Salmoak 108:22 Dohakabe eta behartsu bainaiz, urraturik baitut bihotza barruan.

Salmoak 111:7,8 Ez du izango berri txarren beldurrik, adoretsu dago, Jaunarenganako konfiantzaz; 8 seguru sentitzen da, ezeren beldurrik gabe; azkenean, etsaien porrotaz alaituko da.

Salmoak 142:4 Arnasa galtzen ari naiz, bihotza barruan lehor.

Salmoak 146:3 Bihotz-hautsiak sendatzen ditu, haien zauriak osatzen.

Esaera Zaharrak 14:30 Bihotz lasaia gorputzaren bizia, bekaizkeria minbiziaren parekoa.

Kohelet 1:13 Buru-belarri ari izana naiz mundu honetan gertatzen dena jakinduriaz ikertzen eta aztertzen. Lanbide txarra eman die Jainkoak gizon-emakumeei, horretan jardun dezaten.

Kohelet 2:10 Ez nien ukatu neure begiei eskatzen zidatenik deus ere, ezta neure bihotzari pozik batere. Nire lan guztietan atsegin hartu nuen; hauxe izan zen nire lan guztien saria.

Kohelet 2:22,23 Zer gelditzen zaio gizakiari eguzkipean egin duen hainbeste lan eta eginahaletatik? 23 Egunero atsekabea baizik ez du, eta bere lanetan nekea; gauez ere ez du atsedenik hartzen haren bihotzak. Hau bai dela huskeria!

Kohelet 11:10 Bota heure bihotzetik kezkak, uxa heure gorputzetik gaitza, gaztetasuna eta gaztaroa agudo joaten baitituk.

Isaias 30:29 Zuek, berriz, kantuari ekingo diozue, jai arratsean bezala; bihotzean poz izango duzue, Israelen Harkaitz den Jaunaren mendira txirula-doinuz erromes doanak bezala.

Isaias 57:15 Bai, hau dio garai eta goren den Jainkoak, betiko erregeak, santu deritzanak: «Toki garai eta sakratuan bizi naiz, baina hurbil nago atsekabeturik eta lur jota daudenengandik, lur joak arnasberritzeko eta atsekabetuei adorea bizkortzeko.

Isaias 65:14 nire zerbitzariek poz-oihu egingo dute bihotza bete zorionez; zuek, berriz, garrasi egingo bihotzeko nahigabez, aiene barruko saminez.
Isaias 66:13,14 Amak haurra kontsolatzen duen bezala, halaxe kontsolatuko zaituztet; bai, Jerusalemen kontsolatuko zaituztet». 14 Hau ikustean, pozaren pozez izango duzue bihotza, belar berria bezain heze hezur-mamiak. Horrela erakutsiko die Jaunak ahalmena bere zerbitzariei eta sumina bere etsaiei.
Jeremias 15:16 Zure hitzak niregana iristean, irentsi egiten nituen; horiek nituen neure poz, barru-barruko gozamen; zeuretzat sagaratua bainauzu, ene Jauna, Jainko ahalguztiduna.
Jeremias 24:7 Adimena emango diet ni Jauna naizela ezagut dezaten; nire herri izango ditut eta ni beren Jainko izango naute, bihotz osoz itzuliko baitira niregana.
Joan 14:1 «Ez izan kezkarik: sinetsi Jainkoarengan eta sinetsi niregan ere.
Joan 14:27 «Agurtzerakoan, bakea, neure bakea, ematen dizuet; nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa. Ez kezkatu, ez izan beldur.
Joan 16:6 Baina esan dizuedanagatik, barrua tristuraz bete zaizue;
Joan 16:22 Zuek ere triste zaudete orain, baina berriro agertuko natzaizue, eta poztu egingo zarete, eta poz hori inork ez dizue kenduko.
Eginak 2:46 Egunero bildu ohi ziren tenpluan, baina ogia etxeetan zatitzen zuten, otorduak elkarrekin pozik eta bihotz xaloz eginez.
Erromatarrei 9:2 handia da nire nahigabea, etengabea nire bihotzaren mina.
2 Korintoarrei 2:4 Nire atsekabea eta barruko kezka hain handiak zirenez, negarrez idatzi nizuen; baina ez zuek nahigabetzeko asmoz, nolako maitasun neurrigabea dizuedan adierazteko baizik.
Efesoarrei 5:19 zeuen artean salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak abestuz. Kantatu eta egin gorazarre Jaunari bihotz-bihotzez,

Pastor T. John Franklin
Church of Salvation, Healing, and Deliverance
COS-HAD.org